



DON JOSE GANZARAIN

Joxan

Zaila zaigu askotan gizon batetaz idaztea, eta batez ere pertsona horrekin zorretan aurkitzen garenean, gehiegikeritan erori gabe. Bainan bestetik, badakit ere, zorra horrekin aurkitzen den erreteriar bakarra ez naizela, eta egoera horrek Don José zenaren oroipena egitera bultzatzen nau.

Gogoan dugu denak Don Josen irudia: bizikleta beltz baten gain, beti poliki eta beti garaiz, pintza batzuek galtzak lotzen zituzten bitartean. Gure lehenengo negarraren zinaldariaren (testigu) buru txuria ez dugu ahaztua. Ez dira ahaztutzekoak ere gure bildurrak eta ikarak indizioak jartzera gure etxetara etortzen zenean.

Bainan, nor zen? Nolakoa izan zen bere bizitza? Orain eta berari zor dioten esker ona bezala, hau da nere helburu bakarra: ezagutu duten eta ez duten erreteriar guztiei, gizon honen bizitza azaltzea. Eta ez dut uste desegokia denik, urtekari hontan gogorapen hau egitea, gure bizitzan itsatsia bait dago, bere izaitea eta bere irudimena.

Sortzez baserritarra, Arriarango (Beasain) Iturritza baserrian jaioa, 1896-go Uztailaren 11-an. Bost senideko famili batean, hirugarrena zen.

Baserriko lanetan jardun ondoren, artzantzan ere aritua izan zen. Beranduago, eta etxeko beharrak bultzaturik, Donostiara, morroi bezala, etorri zen.

Dirudienez, ez zituen oso gogozkoak baserriko lanak, eta aitaren baimenarekin Ordiziara jo zuen, Agirre sendagilearen etxera, eta morrointzako lanak egiten zituen bitartean, ikasten hasi zen, Agirre sendagileak ikasketak zuzentzen zizkiolarik.

Soldaduzkako garaia iritxi zitzaionean, Gurutze Gorrrian izena eman eta ikasketak jarraitu zituen. Soldaduzka amaitu ondoren, Valladoliden azterketak egin zituen eta bere ikaskide guztien artean lehenengo saria irabazi zuen.

Itsason egikari (practicante) lan berrian jarri zen, eta bertan bederatzita urte igaro zituen, baserri baserri gaitxoak zaituz. Bertan, eta 1925-go Apirilak 26-ean, ezkon-tzen da Itsasogoena baserriko alabarekin, Inazi Irastorza,

eta hiru seme izango dituzte, bat gazterik hiltzen delarik.

Erreteriar bidea, 1930. urtean hartzen du, oposizioak irabazi ondoren. Eta hemen, gure herrian, hogeitaerretzi urte igaro zituen, erretiroa hartu arte.

Urte luze horietan, beste edozein erreteriar bat bezala bizi izan zen, bizitza ixila eramanaz gure artean. Behar bada, horregaitik jendeak bereiztu zuen «Don» izenarekin jarriaz beti bere izenaren aurrean, sendagile asko abizenez soilki ezagutzen zuten bitartean.

Ohituak geunden, goizeko zortzitako mezetan ikusten. Maiz ere, Olaziregiko botikan sartzen ikusten ginen, herriko sendagileekin bere eguneroko solasaldia egitera. Gizon ona, langilea, nonbaitetik norabaitera zihola ikusten genduen, beti lanetik eta lanerako bidean.

Ba, gizon honi egun triste batean txirrindua lapurtu zioten gure herrian, kanposantutik zuhaitzak lapurtuak izan diren bezala. Eta gure belaunaldiko askok gure haragietan sentitu genduen lapurketa hori. Txirrindu beltz haundi hori iritxi izan bait zen gure etxeetaraino, nere lagunak, nere anaiak eta ni bera mundu hontara etortzen laguntzera.

Erretiroa hartu zuenean, hirurogeitamalau urte zituena, Donostiako Antiguoko auzora bizitzera joan zen, bere seme zaharrenaren ondora.

Han igaro ditu azkeneko hamabi urteak. Ondarretako ondartzak maiz ikusi du Don Jose bere aurretikan pasiatuz. Urteak eta bihotzeko gaitzak ez zituen uzten betidanik txirrindurako zuen zaletasunarekin jarraitu.

Aurten, Otsailak hamabi, bihotzeko gaitz batek gureganetik eraman du. Bainan oraindik, eta gu bizi garen bitartean behintzat, bizirik iraungo du.

Xalbadorren bertso batek adieraz dezake bere erioztaren aurrean, guk gaur sentitzen duguna:

Penetan da etxea penetan auzoa,
horiekin batean herri bat osoa;
gizon baten galtzea ez baita goxoa,
guziz, gizona bazen zu bezelakoa.